



HERRIKO KONTSEILUAREN ERABAKIA ORTZAIZE HERRIA

2026ko otsailaren 3ko saioa

Bi mila eta hogeita sei urteko otsailaren hiruan arratseko zazpiak eta erdietan biltzera deiturik, herri honetako Herriko Kontseilua frantses legeak behartu kopuruan bildu da, bilkuren ohiko lekuan Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza saioko lehendakari izanik.

Presente ziren: AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie_

Ezin etorriak: CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, GOICOECHEA Iñaki

Ahalordeak: DACHAGUER Peio, LEKUMBERRY Xantxori_

Saioko idazkaria: PERUSANSENA Elodie

Deialdiaren data: 2026ko urtarrilaren 30aa

Afixatze data: 2026ko urtarrilaren 30a

4. ERABAKIA: ELUET ERREKA LABORANTZA BIDEAREN ERREGULARIZAZIOA

(3.5 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari adierazi dio Euskal Hirigune Elkargoak, zeinak ur edangarriaren eskumena baitu, urraspideak abiatu dituela Erreka Zarre iturriko eta Eluet Erreka ur edangarriko urtegiaren inguruko geriza perimetro bateko lurren eskuratzeko.

Aldi berean, Auzapezak Eluet Errekako urtegiara daraman laborantza bidearen ibilbidea erregularizatu nahiko luke. Izan ere, azaldu duenez, lehengo bidea ez da errealitatean existitzen eta pista berria ez da katastroko planoetan agertzen. Ondorioz, proposatu du laborantza bidea lekuz aldatzea eta lehengo ibilbidea deuseztea eta alienatzea, inkesta publiko baten ondotik

Auzapezaren azalpenak entzunik eta luzaz eztabaidaturik, Herri Biltzarrak,

ERABAKI DU Eluet Errekarako laborantza bidea lekuz aldatzea eta lehengo ibilbidea deuseztea eta alienatzea inguruetako jabeen onuraz.

AGINDU DIO Auzapezari ekintza horren egiteko eta inkesta publikoa egiteko izapide guzien egitea.

Jardunean diren kideak: 15
Presente zirenak: 12
Adierazi diren bozkak: 13 (12 presente eta ahalorde 1)
ALDE: 13
KONTRA: 0
ABSTENTZIOA: 0

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiazatuaren baliokoa.

ORTZAIZE, 2026ko otsailaren 3a
Auzapeza Jean-Marc OÇAFRAIN

Honako akta indarrean izanen da,
2026ko otsailaren 5ean argitaratu edo jakinarazi ondotik
eta egun berean suprefekturara igorri ondotik.